

ZINEMA EUSKARAZ PROGRAMAKO BALORAZIO BATZORDEAREN PROTOKOLOA

I. KAPITULUA. ZINEMA EUSKARAZ

1. ARTIKULUA.- TESTUINGURUA

Zinema Euskaraz EAEko zinema-areto komertzialetan eta zirkuitu alternatiboetan haurrei eta gazteei zuzendutako euskarazko filmen eskaintza sustatzen duen programa da, ea Zineuskadi Elkarteak bultzatzen du, EZA Eren laguntzarekin.

Protokolo honen testuinguruan, **zinema-aretozat** hartuko dira areto bat edo gehiago izanik zinema komertziala programatzen dutenak, pribatuak, kudeaketa pribatukoak zein publikoak, eta beste kultura-jarduera batzuk ere egiteko erabil daitezkeenak, hala nola zuzeneko opera- eta ballet- emanaldiak, askotariko ekitaldiak, zikloen aurkezpenak, solasaldiak eta abar, betiere 10 urtetik gorako ibilbide profesionala badute, beren herriko kultura-ingurunean zeregin egiaztatua eta egonkorra betetzen badute, sorkuntza eta zinema-arloko kultura-aniztasuna babesten laguntzen badute eta kulturaren eta kalitateko aisiaren dinamizatzailerak badira.

Zineuskadi Elkarteak zinema-aretoetan estreinatzen diren film luzeen (fikziozkoen, dokumentalen eta animaziozkoen) euskarazko bikoizketa- eta/edo azpitolazio-gastuetarako eta film horien sustapen-gastuetarako laguntza-ildo baterako deialdia egiten du urtero.

Laguntza-ildoaren onuradun diren proiektuak Balorazio Batzorde baten bidez aukeratzen dira. Batzorde hori urtero eratzen da eta abenduan berritzen da.

Hortaz, Zinema Euskaraz programaren esparruan film bikoizketara eta/edo azpitolaziora bideratutako laguntzen organo erabakitzailea da Zinema Euskaraz programako **Balorazio Batzordea**.

Era berean, Zineuskadi Elkarteak inplikaturako eragileak dinamizatzeko jarduerak egiten ditu: aldizkako bilerak, lan-batzordeak, helburu berak dituzten beste elkarte batzuekiko lankidetzak, ikus-entzunezko alfabetatzea sustatzeko ekintzak eta abar.

2. ARTIKULUA.- HELBURUAK

Zinema Euskaraz programaren helburuak honako hauek dira:

- Euskarazko ikus-entzunezko kultura sortzea.
- Zinema-areto komertzialetan haurrei edo gazteei zuzendutako euskarazko filmen eskaintza sustatzea.
- Euskarazko zinemaren inguruan haur eta gazte ikusleak garatzeko testuinguruak sortzea.
- Euskarazko ikus-entzunezko kultura sendotzen duten beste testuinguru autokudeatu edo zirkuitu alternatibo batzuetarako euskarazko filmen eskaintza bat sortzea.

3. ARTIKULUA.- HELBIDEA

Zinema Euskaraz programaren helbidea honako hau da: Tabakalera, 3. solairua. Andre zigarrogileen plaza, 1. 20012 Donostia.

II. KAPITULUA – ZINEMA EUSKARAZ PROGRAMAKO BALORAZIO BATZORDEA

4. ARTIKULUA.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Zinema Euskaraz programako Balorazio Batzordean parte hartu ahal izango dute egoitza, zerga-egoitza eta bulegoa Euskadin duten kolektibo edo elkarte guztiek, ahalorde nahikoak izango dituen pertsona fisiko baten bidez behar bezala ordezkaturik. Salbuetsita geratuko dira zinema-banaketako lanak egiten dituzten edo Zinema Euskaraz programaren, Zineuskadi Elkartearen edo haren edozein bazkideren helburuen aurkako interesak ordezkatzeko dituzten pertsonak eta/edo elkarteak/kolektiboak.

Zinema Euskaraz programako Balorazio Batzordean parte hartzeagatik ez da ordainsaririk jasoko.

5. ARTIKULUA.- KIDEEN AUKERAKETA

1. Zineuskadiko ordezkaria Zineuskadi Elkarteko presidentek izendatuko du.
2. EZAeko ordezkaria EZAElkarteko presidentek izendatuko du.
3. Hirugarren blokea osatzen duten elkarteak edo enpresak izendatzeko, honela jokatuko da:

- a. Zineuskadik talde horretan sartzeko hautagaitzak aurkezteko epea zabalik dagoela jakinaraziko du newsletter eta sare sozialen bidez.
- b. 15 (hamabost) egun naturaleko epea irekiko da hautagaitzak aurkezteko. Hautagaitzak posta elektronikoko bidez aurkeztuko dira honako helbide honetan: info@zineuskadi.eu.
- c. Hautagaitza bakoitzak txosten bat aurkeztu beharko dio Zineuskadiri, eta hautagaiaren izena, historia profesionala eta, hala badagokio, aipamen labur bat jasoko dira bertan.
- d. Aurkezten diren hautagaitzak zerrenda irekietan agertuko dira.
- e. Aukeraketa Zineuskadik egingo du 15 eguneko epean, hautagaitzak jasotzeko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta haren webgunean emango da jakitera.
- f. Aukeraturako erakundeak kargua onartu ondoren hasiko dira beren funtzioak betetzen.
- g. Erakunde horiek Zineuskadirekin hitz egiteko zereginak beteko dituen pertsona bat izendatuko dute.

6. ARTIKULUA.- BETEBEHARRAK

Zinema Euskaraz programako Balorazio Batzordean parte hartzeko izendatutako pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

1. Protokolo hau eta hartutako erabakiak betetzea.
2. Deliberazioetan parte hartzea, botoa ematea eta eskatzen zaien lan-foroetan parte hartzea.
3. Aurkeztutako dokumentazioa eta egindako deliberazioak ez zabaltzea.
4. Zineuskadik Zinema Euskaraz programa baloratzeko abenduan deitutako bilerara joatea.

7. ARTIKULUA.- ORDEZKARITZA UZTEKO ARRAZOIAK

Zineuskadiko edo EZAeko ordezkariak kargua uzteko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

- a) Borondatezko kargu-uztea, aldeztatik organo bakoitzeko presidenteari jakinarazita.
- b) Presidenteek beste ordezkari bat izendatzea.
- c) Zinema Euskaraz programan aurreikusitako helburuak betetzeko ezintasuna.
- d) Zinema Euskaraz programaren desegitea edo egitura-aldaketa.

Hirugarren taldea honako kasu hauetan desegingo da:

- a) Urtero, abenduan, urtebetez automatikoki berritzeko aukerarekin.
- b) Bazkideen borondatez.

- c) Zinema Euskaraz programan aurreikusitako helburuak betetzeko ezintasunagatik.
- d) Zinema Euskaraz programaren desegite edo egitura-aldaketagatik.
- e) Zineuskadiko bazkideen erabakiz.

III. KAPITULUA. – BALORAZIO BATZORDEAREN JARDUERA

8. ARTIKULUA.- PROPOSAMENAK

Balorazio Batzordeko edozein kidek bikoizteko film luzeen proposamenak egin ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan aribideko urteko abenduaren 31 baino lehen euskarazko bertsio bikoiztuan eta/edo azpigitulatuan soilik, edota gaztelaniazkoarekin batera estreinatzeko konpromisoarekin.

Zineuskadiri aurkeztutako proposamenarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Teaserra/Screenerra.
- Estreinaldiaren eguna.
- Banaketa-enpresaren konpromisoa estreinaldia EAEn euskaraz soilik edota gaztelaniarekin batera egiteko.

Hirugarren taldeari urtean bere proposamenetatik gutxienez bi titulu sartzeko aukera bermatuko zaio.

Proposamenen zerrenda osatu ondoren, Zineuskadi Elkarteak Balorazio Batzordeko kideei helaraziko die, astebeteko epean beren botoak eman ditzaten.

9. ARTIKULUA.- DELIBERAZIOA

Zinema Euskaraz programako Balorazio Batzordeak hiru boto izango ditu: lehenengoa Zineuskadiko ordezkariarena izango da, bigarrena EZAeko ordezkariarena, eta hirugarrena, berriz, hirugarren taldea osatzen duten gainerako eragileena.

Hirugarren taldea, sektoreko beste eragile batzuek osatua, autonomoa izango da bere bilerak antolatzeko, eta botoak online, modu presentzialean, boto bakar bidez edo taldea osatzen duen bakoitzaren boto bidez eman ahal izango dira. Azken kasu horretan, boto bakoitza Zineuskadiri jakinaraziko zaio aldez aurretik.

Bozketak ez dira sekretuak izango, gehiengo soil bidez hori erabakitzen denean izan ezik.

Aitziber Atorrasagasti Calcedo
Zineuskadiko presidentea

Donostian, sinaduraren egunean